

## **ESKUBALOIKO BERARIAZKO ARAUAK 2020-2021 IKASTURTERAKO**

### **1. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren izena.**

Kontaktu aukerak.

- i. Minieskubaloia (benjaminak eta kimuak)
- ii. Eskubaloia (haurrak)

### **2. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren joko-arauak.**

Kontaktu aukerak.

- i. Minieskubaloia.

✓ Baloia:

- Taldeko arduradun bakoitzak desinfektatuta dagoen baloi bat aurkeztuko du (arbitro-taldearen aurrean desinfektatuko du).
- Baloia aldatu eta erabilia dagoena desinfektatuko du baloiaren jabea den taldeko arduradunak, jokoaren zati bakoitzean (2 zati daude, 10 minutukoa bakoitza).
- Erabiltzen ari den baloia jokoaren edozein unetan aldatu behar bada, hori ere desinfektatuko da.

✓ Aulkia:

- Aulkien eremuak zelaiaren zabalera osoa hartuko du, ordezeko jokalarien artean ahalik eta distantziarik handiena bermatzeko.

- ii. Eskubaloia.

✓ Baloia:

- Etxeko taldeko arduradunak desinfektatuta dauden bi baloi aurkeztuko ditu (arbitro-taldearen aurrean desinfektatuko ditu).
- Partidaren une hauetan gutxienez, erabilitako baloia aldatu eta desinfektatuko du etxeko taldeko arduradunak: partidaren hasieran, lehen zatiaren erdian, bigarren zatiaren hasieran, bigarren zatiaren erdian eta partidaren amaieran.
- Erabiltzen ari den baloia jokoaren edozein unetan aldatu behar bada, hori ere desinfektatuko da.
- Zati bakoitzaren erdian baloia aldatzeko, arbitro-taldeak baloia jokoan ez dagoen une bat bilatuko du (gola sartu osteko erdiko sarea, ateko sarea, alboko sarea, jaurtiketa librea eta abar). Orduan time out egingo du.
- Baloia aldatzeko time out-a ahalik eta laburrena izango da.
- Baloia aldatzeko time out-a dagoen bitartean, jokalaria ez ingo dira aulkira hurbildu entrenatzailearekin hitz egiteko. Horrela eginez gero, entrenatzailea kanpoan utziko dute.

✓ Aulkia:

- Aulkien eremuak zelaiaren zabalera osoa hartuko du, ordezeko jokalarien artean ahalik eta distantziarik handiena bermatzeko.

### **3. Kirol federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduketa-arauak.**

Hidratazioa, bakoitzak bere botilatxoa: partidako parte-hartzaile guztiek, hots, jokalariek, arbitroek, ofizialek eta taldeetako gainerako kideek, bakoitzak bere botila ura izango du, partidaren aurretik, partidari zehar eta partidu ostean hidratatzeko.

Aulkien arteko distantzia: aulkien eta harmailaren arteko distantzia 1,5 metrora heltzen ez den kiroldegietan, harmailletako lehen lerroa libre utzi beharko da.

Jokoaren baloia ez da erabiliko lehiaketaren aurreko asteko entrenamenduetan, eta astebetean berrogeialdian mantenduko da.

Ahal bada, kanpoko eta aire zabaleko zelaiak erabiltzea gomendatzen da.

Kirolaria edozein kolpe, lesio, sendaketa edo beharrarengatik artatu behar bada, maskara eta eskularruak erabiliz egingo da.

Lehiaketen ordutegiak finkatzea komeni da, txandaka, eta pixkanaka sartuz eta irtenez, alde batetik, klubek eta ikastetxeek materialak garbitzeko eta desinfektatzeko denbora izan dezaten, eta bestetik, hurrengo taldeak sartu baino lehen parte-hartzaile guztiak atera daitezten.

#### **4. Parte hartzen duten erakundeek garatzen dituzten entrenamendu eta saioetarako jarduketa-arauak.**

Esprai desinfektatzailea: kirolarien erakundeak esprai desinfektatzailea jarriko du teknikarien eskura, partidetan denek erabiliko dituzten baloiak eta materialak garbi ditzaten.

Ahal bada, norberak bere materiala erabiltzea saiatuko dira. Horrela, parte-hartzaile bakoitzari bere baloia, estera, haltera, goma eta bestelakoak banatuko zaizkio. Gehiegizko materiala erabiltzea saihestuko da; ezinbestekoa bakarrik.

Ahal bada, kanpoko eta aire zabaleko zelaiak erabiltzea gomendatzen da.

Kirolaria edozein kolpe, lesio, sendaketa edo beharrarengatik artatu behar bada, maskara eta eskularruak erabiliz egingo da.

Entrenamenduko ordutegiak finkatzea komeni da, txandaka, eta pixkanaka sartuz eta irtenez, alde batetik, klubek materialak garbitzeko eta desinfektatzeko denbora izan dezaten, eta bestetik, hurrengo taldea sartu baino lehen parte-hartzaile guztiak atera daitezten.